



Zientzia, Teknologia eta Berrikuntzarako Euskal Kontseiluaren akta

ARABAKO TEKNOLOGIA PARKEA
2021EKO OTSAILAREN 16A

Euskadi, auzolana

EUSKO JAURLARITZA



GOBIERNO VASCO

Zientzia, Teknologia eta Berrikuntzarako Euskal Kontseiluaren akta

BERTARATUAK

Iñigo Urkullu jauna. LEHENDAKARIA

Pedro Azpiazu jauna. EKONOMIA ETA OGASUN SAILBURUA

Arantxa Tapia andrea. EKONOMIAREN GARAPENA, JASANGARRITASUNA ETA INGURUMENAKO SAILBURUA

Jokin Bildarratz jauna. HEZKUNTZAKO SAILBURUA

Gotzone Sagardui andrea. OSASUNEO SAILBURUA

Iñaki Arriola jauna. LURRALDE PLANGINTZA, ETXEBIZITZA ETA GARRAIOETAKO SAILBURUA

Bingen Zupiria jauna. KUKTURA ETA HIZKUNTZA POLITIKETAKO SAILBURUA

Ramiro Gonzalez jauna. ARABAKO DIPUTATU NAGUSIA

Unai Rementeria jauna. BIZKAIKO DIPUTATU NAGUSIA

Markel Olano jauna. GIPUZKOAKO DIPUTATU NAGUSIA

Eva Ferreira andrea. EUSKAL HERRIK O UNIBERTSITATEKO ERREKTOREA

Jose M^a Gibert jauna. DEUSTUKO UNIBERTSITATEKO ERREKTOREA

Bixente Atxa jauna. MONDRAGON UNIBERTSITATEKO ERREKTOREA

Rikardo Bueno jauna. BRTA-ko ZUZENDARIA

Leire Barañano andrea. NEIKER-ko ZUZENDARIA

Ricardo Diaz Muino jauna. DIPC-ko ZUZENDARIA

Fernando Cossío jauna. IKERBASQUE-ko PRESIDENTEA

Manuel Salaverria jauna. INNOBASQUE-ko PRESIDENTEA

Alexander Artetxe jauna. ARTECHE TALDEAREN PRESIDENTE ETA ZUZENDARI DELEGATUA

Pello Rodriguez jauna. DANOBATGroup-eko ZUZENDARI OROKORRA

Mikel Barandiaran jauna. DOMINION GLOBAL-eko ZUZENDARI DELEGATUA

Francisco Quintanilla Guerra jauna. FAES FARMA-ko ZUZENDARI OROKORRA

Juan Ignacio Pérez jauna. JAKIUNDE-ko PRESIDENTEA

Cristina Uriarte Toledo andrea. ZIENTZIA, TEKNOLOGIA ETA BERRIKUNTZARAKO KOMISIONATUA

Zientzia, Teknologia eta Berrikuntzarako Euskal Kontseiluaren akta

0. Ongietorria eta hasierako agurra.

Lehendakariak bertaratutakoak agurtu eta ongi-etorria eman die egungo legealdiko lehen Kontseiluan sartu diren pertsonen: Gotzone Sagardui, Jokin Bildarratz eta Bingen Zupiria sailburuak; Eva Ferreira, UPV/EHUko errektore berria; Rikardo Bueno, BRTaren (Basque Research Technology Alliance) ordezkaria; Leire Barañano, Neiker erakundeko kide eta Teknologia Zentroen eta BRTako Zuzendaritza Batzordeko ikerkuntza kooperatiboko zentroen (IKZ) ordezkaria; Ricardo Diez Muiño, Donostia International Physics Centerreko (DIPC) kide eta bikaintasuneko oinarritzko ikerketa-zentroen (BERC) ordezkaria; Juan Ignacio Pérez Iglesias, Jakiundeko presidentea; eta enpresa-sektoreko ordezkari berriak: Alexander Artetxe, Arteche Taldearen ordezkaria; Pello Rodríguez, Danobat Groupen ordezkaria; Francisco Quintanilla, FAES Farmaren ordezkaria; eta Mikel Barandiaran, Dominion Globalen ordezkaria.

Lehendakariak eskatu du aktan jasota gera dadila Kontseiluak eskerrak ematen dizkiela aurreko legealdian bertan parte hartu zuten pertsonen: Nekane Murga sailburua; Nekane Balluerka UPV/EHUko errektore ohia; eta Emiliano Lopez Atxurra, Antxon López Usoz, Jesús M^a Ugalde, Jorge Unda, Rosa María García, Iñigo Ucin eta Francisco Riberas jaun-andreak, Tecnalia, IK4, Jakiunde, Sener, Siemens-Gamesa, Mondragon Korporazioa eta Gestamp erakundeen ordezkariak. Era berean, eskerrak eman dizkio Cristina Uriarteri, Hezkuntzako sailburu ohiari, zeinak une honetan Zientzia, Teknologia eta Berrikuntzarako komisionatu gisa parte hartuko baitu. Orain arte, funtzio hori Jesús Peña Lehendakartzako idazkari nagusiak garatu du, eta hari ere eskerrak eman dizkio.

Lehendakariak hitzaldi labur bat egin du Zientzia, Teknologia eta Berrikuntzarako Euskadi 2030 Plan berria aurkezteko, Zientzia, Teknologia eta Berrikuntzarako Euskal Kontseilua egin aurretik, zeina geroago baitago jaso, 7. puntuan.

1. Aurreko akta irakurtzea eta onestea.

Zientzia, Teknologia eta Berrikuntzarako Euskal Kontseiluak iragan 2019ko abenduaren 10ean egindako azken bileraren akta onetsi da.

2. Bileraren nondik norakoak aurkeztea.

El Lehendakari realiza una introducción general al contenido de la reunión:

«Zientzia, Teknologia eta Berrikuntzarako Euskadi 2020 Plana burutu ondoren, Kontseilu berri hau bildu dugu plan hori nola gauzatu den laburki azaltzeko, bai eta iaz RIS3 pilotaje-taldeek egindako aurrerapen nagusiak azaltzeko ere. Urtea koronabirusak eragindako pandemia sanitarioak markatu du, bai eta hark EAEko ekonomian eta gizartean izan duen inpaktuak ere. Pandemia hori, bileran ikusiko dugun bezala, ez da oztopo izan urtean zehar

Zientzia, Teknologia eta Berrikuntzarako Euskal Kontseiluaren akta

planifikatutako jarduerak egiten jarraitu ahal izateko. Hain zuzen, jarduera horien bidez amaitu da 2014ko abenduan, aurreko Plana onetsi zenean, hasitako lana.

Bileraren 6. puntuan, "Zientzia, Teknologia eta Berrikuntzarako Euskadi 2030 Plana" aurkeztuko da, Kontseiluak aldeko txostena eman dezan. Plan berri horrek, aurrerago ikusiko dugun bezala, kontseilu honek duela urtebete pasatxo onetsitako oinarri estrategiko eta ekonomikoei erantzuten die, eta Euskadi berrikuntzan aurreratuen dauden Europako eskualdeen artean kokatzea du helburu, eta, horrela, bizi-maila eta enpleguaren kalitatea hobetzen laguntzea.

Kontseilu hau da ikerketaren eta berrikuntzaren arloan orientazio estrategikoa eta aholkuak ematen dituen nahiz arlo horietan parte hartzeko bide ematen duen organo nagusia, eta berau berritzea plan berria ezartzeko lehen fasearen parte da, datozen urteetan hura arrakastaz hedatzen lagundu ahal izateko».

Ondoren, bilerako gai-zerrenda aurkeztu du. Jakinarazi duenez, azken atalaren ondoren, eta amaierako ondorioak adierazi baino lehen, galde-eskeen txanda egongo da.

Hasierako azalpen horren ostean, lehendakariak Cristina Uriarteri eman dio hitza, ZTBP 2020 planaren betearazpen-laburpena azal dezan.

3. «ZTBP Euskadi 2020» planaren betearazpen-laburpena.

Cristina Uriartek, Zientzia, Teknologia eta Berrikuntzarako komisionatuak, ZTBP 2020 planaren betearazpen-laburpena aurkeztu du, plan hori amaitu eta ZTBP 2030 berria egiteko abiapuntutzat hartu den ebaluazio-prozesu bat egin eta gero. Gaurko Kontseiluan emandako dokumentazioaren parte da aurkezpen hori.

Aurrekontua betearazteari dagokionez, 2014-2019 aldian 8.122 milioi euroko inbertsio erreala egin da I+G arloan Euskadin, hasieran 9.191 milioi euro aurreikusi baziren ere. Horrek adierazten du % 88ko betetze-maila orokorra egon dela, eta % 90ekoa da betetze-maila hori, foru-aldundien berrikuntzari eta ekintzailetzari laguntzeko kontu-sailak inbertsio gisa kontabilizatzen baditugu. Finantzaketa-iturrien jokabidea aztertuz gero, nabarmentzekoa da Eusko Jaurlaritzaren inbertsio-ahalegina, aurreikusitakoarekin alderatuta % 106koa izan baita, bai eta nazioarteko finantzaketa ere, % 100era iristen baita, batez ere Horizon 2020 programatik jasotako funtsei esker. Nolanahi ere, enpresen inbertsioa % 82koa izan da, aurreikusitako helburua baino txikiagoa.

Planaren helburu operatiboei lotutako adierazleen bilakaerari erreparatuta, ikusten da hamabi adierazleetatik bederatzik bilakaera positiboa izan dutela 2014-2020 aldian, eta sei adierazlek ezarritako helburua gainditu dutela. Espezializazioari dagokionez, inbertsioak gero eta gehiago kontzentratu dira RIS3 Euskadi estrategian zehaztutako lehentasunetan: 2019an % 98ra iritsi dira, % 90eko helburutik gora. Jarduera-mixari dagokionez, ez da guztiz erdietsi

Zientzia, Teknologia eta Berrikuntzarako Euskal Kontseiluaren akta

helburua, batez ere emaitzak merkatuan jartzetik hurbilen dagoen ikerketak adierazten duen garapen esperimentalari dagokionez. Zientzia, Teknologia eta Berrikuntzarako Euskal Sistemaren emaitzei dagokionez, nabarmentzekoa da produktu berrien salmenten ehunekoa urteko fakturazioaren eta indexatutako argitalpen zientifikoen gainean, % 30 baino gehiago hazi baita; aitzitik, Europako patenteen eskaeren kopurua ez da lortu nahi zen helburura iritsi. Sistemaren nazioartekotzeari dagokionez, nabarmen hazi da I+G arloko atzerriko finantzaketaren pisua, 2019an % 8,7ra iritsi baita, eta ezarritako helburua (% 8) gainditu baitu. Bestalde, berrikuntzak egiten dituzten enpresen ehunekoari dagokionez, ez da ezarritako helburua erdietsi, eta ikertzaileen kualifikazioari dagokionez, doktoreen ehunekoa apur bat hazi da ikertzaileen guztizkoa kontuan hartuta.

RIS3 arloen bilakaerari dagokionez, RIS3 arloetako I+Gko inbertsioak guztizkoaren % 74 izan ziren 2019an, eta 2014an, berriz, % 71,4. Ia bi heren fabrikazio aurreratuko, energiako eta osasuneko lehentasun estrategikoetara bideratu ziren. Eta Policy Mix delakoaren bilakaerari dagokionez, ZTBPrekin lotutako programek mobilizatu zuten finantzaketa-bolumena 322 milioi eurokoa izan zen 2019an; hau da, % 31ko igoera izan zen 2015eko 246 milioi eurokoarekin alderatuta.

Egindako barne-ebaluazioari dagokionez, nabarmentzen da RIS3 Euskadi estrategiaren hedapena osatu dela, % 90 inguruko aurrekontu-betearazpenarekin. Zientzia, Teknologia eta Berrikuntzarako Euskal Sistemaren efizientzia hobetu egin da inbertsioen hazkundeak baino gehiago hazi direlako haren emaitzak, biak ala biak Europar Batasunekoekin alderatuta. Hala islatzen da enpresa-berrikuntzako emaitzen, emaitza teknologikoen eta emaitza zientifikoen bilakaeran, hurrenez hurren, produktu berrien salmentaren, goi-teknologiako eta erdi-mailako teknologiako produktuen esportazioen eta nazioartean gehien aipatzen diren argitalpen zientifikoen bidez. Halaber, I+G arloko nazioarteko finantzaketak gora egin du 2014-2019 aldian, eta 128,4 milioi eurokoa izan da azken urtean.

Bestalde, egiteko dauden erronka hauek nabarmentzen dira: I+G arloko inbertsioa handitzea; I+G arloko enpresa-inbertsioak bultzatzea; enpresa txiki eta ertainen berrikuntzako ahultasuna gainditzea eta emakumeak zientzian eta teknologian duen presentzia indartzea.

Azkenik, RIS3 estrategian aditua den Europako Batzordeko kanpoko pertsona batek egindako kanpo-ebaluaziotik honako hau nabarmentzen dugu: Euskadik industria- eta berrikuntza-estrategiak hogeita hamar urtez baino gehiagoz ezartzearen aldeko apustua egin badu ere, RIS3 estrategiaren prozesua sartzeak berrikuntza bat eta erronka bat ekarri du, eta aldaketa esanguratsuak identifikatzen ditu prozesuaren gobernantzan.

Zientzia, Teknologia eta Berrikuntzarako Euskal Kontseiluaren akta

4. - RIS3 pilotaje- taldeen aurrerapen nagusiak.

Arantxa Tapia: Energia, Fabrikazio Aurreratua, Elikadura eta Ekosistemak.

Hitza hartu du Ekonomiaren Garapen, Jasangarritasun eta Ingurumeneko sailburuak, Arantza Tapiak, eta Fabrikazio Aurreratua, Energia eta Elikadura pilotaje-taldeen aurrerapenak aurkeztu ditu.

Aldez aurretik, I+G, BIND 4.0 programa eta Basque Digital Innovation Hub (BDIH) finantzatzeko sailtako programen monitorizazioa eta ebaluazioa laburbildu ditu.

Hazitek eta Elkartek programen 2020ko deialdian, 342 M€ onetsi dira lehentasunezko arloetako eta aukera-esparruetako proiektuetan, eta 125 M€-ko dirulaguntza eman da 889 proiektutan. Hiru lehentasun estrategikoak jardueraren % 90 dira, gutxi gorabehera.

- Fabrikazio aurreratua (FA): 231,3 M€ onetsita, 565 proiektu, 79,5 M€ dirulaguntzetan (% 40 inguru, Hazitek estrategikoa)
- Energia (E): 43,2 M€ onetsita, 74 proiektu, 19,4 M€ dirulaguntzetan (% 50, Hazitek estrategikoa)
- Osasuna (O): 39 M€ onetsita, 116 proiektu, 18,6 M€ dirulaguntzetan (% 25 inguru, Hazitek estrategikoa).

2016-2019 aldiko denboraren arabera bilakaeraren azterketan, injeztatutako baliabideak eta inpaktua nabarmendu behar dira. Injeztatutako baliabideei dagokionez, Fabrikazio Aurreratuaren lehentasunak kuota handiagoa izaten jarraitzen du, baina Energiak eta Osasunak gero eta presentzia handiagoa dute. Hiruren artean % 90 inguru dira (bai onartutako aurrekontuari dagokionez, bai emandako dirulaguntzei dagokionez). Enpleguan duen inpaktuari dagokionez, igoera nabarmen bat gertatu da: batez beste, 21,2 enplegu sortu dira 1 M€-ko dirulaguntza bakoitzeko (25,4 FAn, 11,6 Energian eta 7,2 Osasunean). Fakturazio-inpaktuan, gora egin du FAn (garrantzitsuen), mantendu egin da Energian, eta behera egin du pixka bat Osasunean.

RIS3 arloekin bat datozen startup-ak azeleratzeko BIND 4.0. programan, 5 edizio garatu dira: + 1.700 jasotako hautagaitza, + 50 EAEko enpresa traktore, + 10 startup azeleratu, + 4,5 M€-ko fakturazioa. Onetsitako proiektuak (193), RIS arloaren arabera: 128 FA; 29 E; 18 O; eta beste 18 aukera-esparruei dagozkienak.

BDIH hasierako bere arlotik (Fabrikazio Aurreratua) harago joan eta Energia eta Osasuna arloetara hedatu da, laster sortuko diren bi nodo berriren bidez: «Sare elektriko digitalak» eta «Gailu medikoak eta osasun digitala». Horrela, ETEei babesa eskaintzen jarraitu nahi du teknologia digital eta jasangarrien esperimentazioan.

Urtarrilean, Europako Batzordeak BDIH saritu zuen, Digital Innovation Hubs Europako Sarearen bidez. Sailburuak online jaso zuen saria. Une honetan, BDIHk 21 kide ditu, +30 eskualdeko bazkide estrategiko, +140 aktibo, +700 ikertzaile, 4 MoU (elkar ulertzeko memorandumak) Europako DIHein izenpetuak.

Zientzia, Teknologia eta Berrikuntzarako Euskal Kontseiluaren akta

Osasunaren arloan, 2020an Ekonomiaren Garapen Sailak COVID-19 I+G ekimena jarri zuen abian. Ezohiko deialdia izan zen, ikerketa sustatzeko eta larrialdi sanitarioaren ondorio sozioekonomikoetatik suspertzen laguntzeko premiazko neurri bat. 1,6 M€. Proiektuak ebaluatzeko irizpideak: aukera, premia egiaztatua eta urgentzia/berehalakotasuna.

Oinarri teknologikoko 14 enpresa berri jarri dira abian BICen bidez (6 Bizkaian, 6 Gipuzkoan eta 3 Araban).

2018an, Health Tech bertikala sartu zen Bind 4.0 plataforman. Ordutik, 2019an gauzatutako 6 proiektu daude; 2019an aurkeztutakoetatik 3 atzeratu eta 4 garatu dira; eta, 2020an, 1 baino ez da garatuko (COVID-19ak sortutako egoera dela eta). Espero dezagun hurrengo edizioa arrakastatsuagoa izatea.

Basque Health Clusterraren bilakaerari dagokionez, bere jarduera osasunaren arlorantz zabaldu du. 2014an BPGd-ren % 0,42 izatetik 2019an BPGd-ren % 2 izatera igaro da. Enpresa txiki eta ertainak % 60 eta enpresa handiak % 12 izanda, Biotech eta gailu medikoen arloetan kontzentratzen da jardueraren zati handi bat.

A) *Fabrikazio aurreratua.*

Sailburuak azaldu du aurtengoa ezohiko urtea izan dela. Nolanahi ere, lanean jarraitu da. Batzorde exekutibo bat, Zutabe Estrategikoen arteko koordinazio-bilera bat eta Industria Adimendunaren estrategia berriari buruzko hausnarketarako eta kontrasterako zenbait bilera egin dira.

I. zutabe estrategikoan nabarmendu beharreko ekintzen artean, eskaria aktibatzearekin lotutako jardueretan zentratu da Basque Digital Innovation Hub. Besteak beste, programa berri bat abiaraztea: BDIH-Konexio, enpresek nodoen aktiboak erabiltzea sustatzeko. 49 eskaera aurkeztu dira programa horretara. Data Driven Solutions-en nodoari dagokionez, erabilera-kasu berriak baliozkotzen jarraitu da. Gaur egun 25 daude eskuragarri. II. zutabe estrategikoari dagokionez (enplegurako prestakuntza), 4.0 Industriako espezializazio-programak definitzen lan egin da, Unibertsitate Hezkuntzarekin (4GUNE klusterra) eta Lanbide Heziketarekin lankidetzan. Gerentziari zuzendutako Industria 4.0 programa exekutiboa 2021eko otsailetik ekainera bitartean egingo da.

Industria Adimendunaren estrategia berriari dagokionez, Fabrikazio Aurreratuko estrategiaren bilakaera gisa definitu da 2020an zehar, eta parte hartzeko prozesu baten bidez garatu da. Zientzia- eta teknologia-eragileekin (BRTA), prestakuntza-eragileekin (4Gune) eta klusterren erakunde dinamizatzaileekin kontrastatu da. Estrategia berri horrek elementu berritzaile hartzen ditu jasangarritasunaren erronka eta Adimen Artifizialaren aukeren aprobetxamendua. I+G+Bko lehentasunetako arloei dagokienez, bi kategoria handitan biltzen dira: ekoizpen jasangarriko teknologiak eta teknologia digitalak. Horrez gain, funtsezko 9 aplikazio-eremu ezarri dira: 4 zeharkakoak eta 5 fabrikazioaren balio-kateko maila espezifikoetara bideratutakoak. Azkenik, tresnei dagokienez, gaur egungoek indarrean

Zientzia, Teknologia eta Berrikuntzarako Euskal Kontseiluaren akta

jarraitzen dute eta ongi egokitzen dira, nahiz eta etorkizunean berriren bat zehaztu beharko den.

B) *Energia.*

Sailburuak jakinarazi du COVID-19ak energiaren sektorean eragindako inpaktuaren ebaluazioa egin dela (enplegua, fakturazioa, I+Gko inbertsioa, ekitaldiko emaitza edo eskaera-zorria). Halaber, aurtengo inpaktuaren eta 2021erako aurreikuspenaren berri eman du.

Horrez gain, lantaldeetan egindako lanaren berri eman du, eta honako hauek nabarmendu ditu:

- a. 2020an abian jarritako lantalde (LT) berriak, I+G proiektuen eta lankidetzako ekimen estrategikoen definizioa indartzeko eta bultzatzeko. Horietako batzuei esker, gainera, azpimarratu egin ahalko dira teknologia digitalak aktibo eta azpiegitura energetikoetan sartzeari lotutako negozio-eredu berriak:
 1. Hidrogenoaren teknologietan aukerak aztertu eta identifikatzea; hiru proiektu identifikatu dira.
 2. Eoliko flotatzailearen sektorearen garapena.
 3. i-DEK sustatutako «Global Smart Grids Innovation Hub» zentroaren lankidetzaren eta jarduketaren teknologikoen kontrastea.
 4. Sare Elektriko Digitalen nodo bat sortzea Basque Digital Innovation Hub (BDIH) sarean, enpresen eta ETEen eskura jar daitezkeen aktibo digitalak dituzten Zientzia, Teknologia eta Berrikuntzaren Euskal Sareko enpresa eta eragileekin.
 5. Sare elektrikoetarako soluzio digital berrien negozio-ereduak.
- b. Hona hemen epe laburrean LT eta Ekimen Estrategiko berrietan zehaztu daitezkeen beste ildo teknologiko batzuk:
 1. Ekodiseinuko teknikak ezartzea balio-kate energetikoetan.
 2. Saiakuntzak garatzea eta olatuen energia-bihurgailuak eta sistema osagarriak baliozkotzea.
 3. OPEXa hobetzea instalazio fotovoltaikoetan, eragiketa- eta mantentze-jarduerak digitalizatuz.

Azkenik, sailburuak azaldu du EnergiBasque Estrategia eguneratu dela, eta horren ondorioz indar handiz sartu direla hidrogenoa eta eguzki-energia fotovoltaikoa (orain arte, eguzki-energia fotovoltaiko kontzentratua biltzen zen), bai eta beste hiru teknologia berri ere (digitalizazioa, ekonomia zirkularra eta material berriak).

C) *Elikadura.*

Sailburuak, hasteko, RIS3 Euskadi estrategia hedatzeko 2020an garatu diren ekintzarik nabarmenenak aipatu ditu. Elikadura osasungarriaren arloan, lankidetzan jarraitu da Osasun

Zientzia, Teknologia eta Berrikuntzarako Euskal Kontseiluaren akta

Sailarekin, elikagai-enpresa traktoreekin eta teknologia-zentroekin, zenbait proiektu garatzeko. Horien artean nabarmendu du vending osasungarriaren estrategiaren garapena; alegia, makinak eta haietan dauden produktu osasungarriak diseinatzea eta ezartzea. Esparru horretan ere, lanean jarraitu da dieta pertsonalizatuak garatzen, obesitateari eta 2. motako diabetesari aurre egiteko. Elikadura/Osasuna ardatzeko beste ildo bat minbizia duten gaixoentzako elikagaiak garatzea izan da, mintz zelularreko lipidomikaren teknologia berria aplikatuta, zehaztasuneko nutrizio-formulak garatzeko, desnutrizioa saihesteko eta zentzumen-nahasmendu akutuak arintzeko. Azkenik, nabarmendu du animalien ekoizpena medikalizatzeari uzteko proiektua abian jarri dela; izan ere, animalien osasungintzan antibiotikoak modu desegokian erabiltzeagatik bakterioetan erresistentziak sortzen dira, eta gero elikaduraren bidez gizakiengana igaro daitezke; eta horixe saihestu nahi da, hain zuzen.

Elikadura-katearen digitalizazioa fabrikazio aurreratuaren eta elikaduraren arteko lankidetzan oinarritzen da. Hazitek programaren bidez finantzatutako proiektu estrategiko bat jarri da abian. Horren garapen-ildo batzuk honako hauek dira: monitorizazioa, digitalizazioa eta sensorika aurreratua; datuen tratamendu adimenduna eta trazabilitatea.

Ekintzailetzaren esparruan, nabarmendu du Food Tech bertikala sartzeari Bind 4.0 plataforman, Euskadiko 7 enpresa traktoreen parte-hartzearekin. 54 startup aurkeztu zaizkie horiek planteatutako erronkei, eta 5 kontratu sinatu dira.

Katilu berrikuntza-brokerrak egiten duen lurralde-hedapenari dagokionez, iaz egindako jarduerak laburbildu ditu (13 sentsibilizazio-jardunaldi; 2 ikastaro; 2 bideo, berrikuntza- eta lankidetzaren proiektuei buruzkoak; eta 12 webminar, COVID-19ak elikaduraren balio-katean duen inpaktuari eta egokitzapenari buruzkoak). Guztira, 1.400 lagun baino gehiagorengana iritsi da.

Aurten, halaber, Mugagabe programa garatzen jarraitu da; 155 berrikuntza-bonu eman dira (guztira, 428.836 euro), eta horien helburu nagusia izan da ekintza berritzaileak garatzea elikagaien merkaturatzean (batez ere, COVID-19a dela-eta Horeca kanala erortzearen ondorioz ukitutako elikagaiak).

Beste aukera-esparru batzuekiko lankidetzaren eremuan, aurten areagotu egin da lankidetzaren Kultura eta Sormen Industriekin (KSI), eta 14 ekimen inspiratzaile identifikatu dira, elkarrekin garatzeko.

Azkenik, nabarmentzekoa da EIT Food ekimenaren azelerazio-programak aurrera jarraitu duela eta 9 startup azeleratu direla Euskadiko egoitzan.

D) **Ekosistemak.**

Sailburuak, hasteko, 2016-2020 aldiko planaren emaitza nagusiak aurkeztu ditu, Zientzia eta Teknologia 2030 Planerako ikaskuntza-ekarpen bat egite aldera. Halaber, kopuru orokorrak eman ditu: aldi horretan, ia 9 M€-ko inbertsio publikoa egin da (guztira, 18,3 M€-ko aurrekontua) ekonomia zirkularrerako bokazio handiko 361 proiektutan.

Zientzia, Teknologia eta Berrikuntzarako Euskal Kontseiluaren akta

2020. urtean, Klimatek proiektuetan klima-arriskuaren azterketa egin da 14 sektoretarako, klima-aldaketa egokitzeko ekintzei lehentasuna emate aldera. Tokiko berrikuntza-programak, 2020ko deialdian, 17 toki-erakundek garatutako 13 proiekturi eman die laguntza, zeharkako ikuspegia duten ekimenekin arlo hauetan: ekonomia zirkularra; klima-aldaketa arintzea eta hartara egokitzea; natura-ondarea kontserbatzea eta hobetzea; eta baliabideak efizientziaz erabiltzea.

Ekonomia zirkular industrialaren esparruan, 30 proiektu sustatu dira aipatutako arloetan.

Urrats garrantzitsuak egin dira Life URBANKLIMA proiektuko neurriak garatzeko. Europak 8 milioi euroko finantzaketa eman du, eta urteko ordainketa horrek nabarmen handitu du inbertsioa lurralde-ildoan.

Berrikuntza-proiektuen emaitzak merkaturatzea lortzeko, ahalik eta arrakasta-berme handienekin, Circular Factory ekimen estrategikoaren bidez egin da lan, eta enpresak gaitu dira, negozio-planaren hasierako hedapenean prestakuntza eta laguntza emanez.

Gotzone Sagarduy: Biozientziak-Osasuna.

Sailburuak, hasteko, gogora ekarri ditu pilotaje-taldeko kideak, lehentasunezko arloak (tematikoak eta zeharkakoak), lantaldeak eta berrikuntzarekin lotutako ekimen estrategikoak. Hori guztia lau zutabe edo ardatzetan egituratutako ekintza-plan batean sartuta: I+G+B; negozio-ereduak; nazioartekotzea; eta prestakuntza eta hedapena.

Jarraian, pandemia agertu izana eta sektore biosanitarioaren funtsezko izaera aipatu ditu, eta laburbildu ditu krisiari erantzuteko egin diren ekintza nagusiak, hala nola COVID-19ra bideratutako finantzaketa eta detekzio-, tratamendu- eta ekipamendu-sistemen ikerketa- eta garapen-proiektuen betearazpena, eta lau adibide zehatz azaldu ditu.

Ondoren, sailburuak lantaldeen aurrerapenak eta Ekintza Planaren lau ardatzak deskribatu ditu; izan ere, pandemia egon arren, jarduerak jarraitu egin du, besteak beste, honako hauekin: I+G+B arloan, Gaixotasun Arraroetan aurreikusitako ekintza-planaren hedapen jarraitua (2025 horizontea); 2021-2024 Plan Estrategikoaren zirriborroa egitea «Neuro» eta «Medikuntza pertsonalizatua» arloetan (honako azpiarloak: Onkologia; Medikuntza Birsortzailea eta Terapia Aurreratuak; eta Gaixotasun kardiometabolikoak); Osasunaren nodoa (Gailu medikoak eta osasun digitala) txertatzea Basque Digital Innovation Hub-en; zahartzeari buruzko I+G+B arloko plan estrategikoa egitea (ZTBP 2030 planeko Zeharkako Trakzio Ekimena prestatzeko) eta sektoreari laguntzeko aktibo berriak diseinatzea. Negozio-ereduen esparruan, jakinarazi dira Innosasanaren emaitzak (EAEko 121 enpresari emandako laguntza gisa, Medtech ekimena barne) eta Baliotasunaren emaitzak (enpresa-sektorerako aukeren sortzaile gisa), bai eta osasun-arloko emaitzak ere BIND 4.0 plataforman. Jarraian, Nazioartekotzea (Europako proiektuak, azokak, sareak eta topaketak) eta Prestakuntza eta hedapena ardatzetako jardura erakutsi da, eta adierazi da Lanbide Heziketaren BIO nodoaren garapen ona eta Euskampusen dedikazioa «neuro» arloan.

Zientzia, Teknologia eta Berrikuntzarako Euskal Kontseiluaren akta

Bukatzeko, sailburuak datu eta adibide zehatzak erakutsi ditu (15 enpresarenak), sektore biosanitarioaren hazkundera adierazten dutenak –fakturazioan, dimentsioan, ekoizpen-ahalmenean, kanpo-inbertsioan, nazioartekotzean eta enpresa kopuruan, startupak etengabe sortzearen arabera eta dibertsifikazioaren arabera–. Gaur egun, 170 enpresa baino gehiago ditu sektoreak, eta BPGd-ren % 2 inguruko ekarpena egiten du.

Iñaki Arriola: Hiri-habitata.

Lurralde Plangintza, Etxebizitza eta Garraioetako sailburuak Hiri-habitata arloko pilotaje-taldearen aurrerapenak aurkeztu ditu, zeinari «Hiri jasangarriak» deituko baitzaio ZTBP 2030 planean. Azken urteotan, taldeak eboluzionatzea izan du ardatz, eraikuntza jasangarriaren sektorea ez ezik, hirian sortzen den elkarrekintza-eremu konplexu guztia ere bere lan- eta esku-hartzeko eremuan integratzeko.

Ikuspegi horretatik, pilotaje-taldea Euskadiko Hiri Agendaren (BULTZATU 2050) I+G+B euskarri bihurtzeko oinarriak ezartzen jardun da, funtsean, taldea.

2019ko urrian, Euskadiko Hiri Agenda - BULTZATU 2050 onetsita, Gobernu Kontseilutik igaro ondoren, orain hasi da zeregin nagusia: hura ezartzea, gure auzoak berroneratzeko ikuspegiarekin, bereziki auzorik kalteberenei erreparatuta. Horretarako, hiri-kalteberatasunaren inbentarioa eguneratu da eta eraikitako parkea birgaitzeko epe luzeko estrategia egiteko diagnostikoa garatu da.

Aldi berean, Europako proiektua lantzen jarraitzen dute, helburu bikoitzarekin: EAE osora heda daitekeen kudeaketa-eredu bat diseinatzea eta ezartzea, hurbileko bulegoetan zentratua, eta finantza-tresna berritzaile bat definitzea, etxe guztien finantzaketa-premiei erantzun ahal izateko balioko duena.

Bultzatu 2050en I+G+B arloko jardueraren beste euskarri bat dira jarduera berritzaileak eta horiek errazten dituzten ekipamenduak, hala nola Otxar Urban Gela.

I. FASEAN, erabiltzen ez zen BBKren eraikin zaharra egokitu da, bertan jartzeko proiektu pilotuaren hurbileko bulegoa, bai eta auzorako prestakuntza-aretoak eta areto balioaniztunak ere.

Halaber, instalazio horietan egin dira LHIEEren (IVAP) «Hiria birgaitzeko eta berroneratzeko kudeaketa» ikastaro berriaren bi edizio, eta 80 teknikarik hartu dute parte.

II. FASEAN, erabiltzen ez den ondoko eraikina egokitu nahi da, eta, halaber, espazio horren egokitzapena osatu nahi da, Hiri Berroneratzearen Ikerketa Zentroa har dezan. Hain zuzen, gela/laborategiak jarri nahi dira, unibertsitateek, IVAPek eta abarrek topagune bat izan dezaten berroneratzearen berrikuntzaren inguruan, eta, aldi berean, aukera egon dadin espazio horietan hiri-berroneratze, -birgaitze eta -berritzean espezializatutako prestakuntza-programak garatu ahal izateko.

Zientzia, Teknologia eta Berrikuntzarako Euskal Kontseiluaren akta

Lehenegorik, lanak amaitu eta F merkataritza-gunean estalki aktiboa jarri ondoren, ia erabat abandonatuta zegoen eraikin bat birgaitu da proiektu horren bidez, eta, era berean, erabiltzen ez zen tarteko espazio bat birgaitu da. Esku-hartze horren bidez, auzoan jardura berritzaileak erakartzeko gune berri bat sortu nahi da, erabilera publikoko gune babestu bat izango duena. Estalki fotovoltaiko aktiboa ezartzeak energia-kontsumo ia nuluko gune bihurtuko du multzoa.

BAI+D+i programaren deialdiko beste proiektu batzuk Euskadiko udalerrri ugartan ari dira garatzen, eta deialdiaren xede diren garapenak eta proposamenak merkaturatzen dituzte.

2021etik 2022ra bitartean garatuko den bigarren deialdia egin da, eta erantzuna nabarmena izan da.

Era berean, adierazi behar da Euskadi Next Programan dagoen Ekonomia Sustapenerako eta Eraldatzeko Proiektu Estrategikoa (ESEPE), Hiri-berroneratze Integraleko proiektuari dagokiona, EAE osoan garatu nahi den proiektu berritzailea dela.

Euskadi Next programan sartuta dago, halaber, alokairuko parke publikoaren birgaitze eraginkorrerako Zero Plana, kontsumo ia nuluko eraikinen nZeb Ekimen Estrategikoaren emaitza dena.

Etxebizitza publikoen parke osoa energia-kontsumorik gabeko eta CO2 emisiorik gabeko egoera batera eramateko ikuspegi global berri horrek eredu erreplikagarri bihurtu nahi du beste etxebizitza-parke mota batzuetan.

Zero planak hiru eremutan esku hartzea dakar: eraikitako parkea bera –eraikinak–, erabiltzaileak –haien portaera energetikoa eta etxebizitzetako erosotasuna– eta, azkenik, kudeaketa aurreratuko ereduak.

2050era arteko ibilbide-orri oso bat da, eta, inbertsioen programa bat biltzen du.

Zero plana, lehen fasean, livinglab bat izan da, 25 ikerketa-ildo baino gehiago dituen, hala nola monitorizazioa, kontsumoak aztertzeak aplikazioak sortzea, kostu optimoko esku-hartzeak gauzatzea eta kudeaketa energetikoaren ereduak berrikustea. Hori guztia ekimenerako berariaz sortutako pilotaje-batzorde dinamiko bati esker.

Ikerketa-ildo horietako batzuk, hala nola alokairurako BIM (Building Information Modeling) metodologia eta eraikitako parke publikoaren digitalizazioa –kudeaketa aurreratua aplikatzeko–, nabarmendu dituzte mundu mailan gai horretan erreferentzia diren eragile batzuek –besteak beste, autodeskek–, World Changing Awards sarien esparruan.

Gaur egun, abian dira zero planaren lehen proiektu pilotuetako lanak, bideo honetan ikus daitezkeen bezala.

Aurrerantzean, nZeb Ekimen Estrategikoak, ZTBP 2030 planari begira, beste kontzeptu batzuk txertatzea bilatuko du, hala nola egun dagoen parkearen birdentsifikazioa eta kanpo-bizigarritasuna indartzea kontsumo nulurako birgaitze energetikoaren esparruan, betiere

Zientzia, Teknologia eta Berrikuntzarako Euskal Kontseiluaren akta

helburu dela sektorean «iragazkortasun» ahalik handiena bilatzea eta hura benetan gauzatzea.

Bingen Zupiria: Kultura eta Sormen Industriak (KSI).

Kultura eta Hizkuntza Politikako sailburuak, hasteko, esan du EAEko kultura eta sormenaren sektorearen egungo errealitatea eragin duen prozesua 2013an hasi zela. Erronka zen Europan kokatzea eta Kultura eta Sormen Industrien potentzialean sakontzea. Ildo horretan, 2015ean Kultura eta Sormen Industriak Euskadiko RIS3 estrategian aukera-esparru gisa sartzeko lanak hasi ziren.

2017tik aurrera, bigarren fase batean, hauek izan ziren erronka nagusiak: a) sektorea hobeto artikulatzea lortzea; b) kudeaketa aurreratua eta berrikuntza babesteko programak sartzea; eta c) RIS3 estrategian parte-hartzea sendotzea eta Eusko Jaurlaritzako Ekonomiaren Garapen Sailarekiko lankidetzan sakontzea.

Jarraian, proiektu hauek nabarmendu ditu sailburuak:

1. Honako programa hauek abiatzea:
 - a. KSI BERRITZAILE (berrikuntza) eta
 - b. KSI ATEA (nazioartekotzea).

Innobasquerekin lankidetzan, KSI BERRITZAILE programaren sortzetiko helburua da proiektu berrientzako aukera-eremuak sortu eta garatzea, ondorengo hiru jarduerarantz: a) berrikuntza teknologikoa, b) antolamendu ereduaren berrikuntza eta c) enpresen finantza-gaikuntza. Programa pilotu horrek 336 enpresa-proiektu kudeatu ditu 2017tik 2020ra bitartean, bere hiru jarduerarantz. KSI ATEA programari dagokionez, 2019tik 2020ra bitartean 100 diagnostiko eta 40 nazioartekotze-plan kudeatu dira.

2020an, 3 lantalde espezifiko sortu dira, proiektu bakoitzaren arabera: a) Basque District of Culture and Creativity (BDCC), b) I+G+B, eta c) Cross-Fertilisation. 2020tik 2021era bitartean garatuko dituzte beren proiektuak. 2020az geroztik, RIS3 Euskadi Sortzailea izena hartu du RIS3 KSI pilotaje-taldeak.

2. Basque District of Culture and Creativity (BDCC) tresnaren diseinu pilotua. Horretarako, 2019-2022 Kultura Planak, Kultura eta Sormen Industriak indartzera bideratutako ildoan, BDCCren sorrera jasotzen du, sektoreko politika berritzaileak bateratzeko. 2020an egin diren jardueren artean daude hauek: Flanders DCren zerbitzu-ereduak transferitzea, zerbitzuak definitzea eta 2021etik aurrera BDCCren zerbitzu horiek hartuko dituen web-plataforma sortzea.
3. Azkenik, honako hauek osatuko dute datorren urteetarako ekintza-plana: DC NETWORK izeneko sorkuntza-barrutien nazioarteko sarean parte hartzea; CREADIS3 (Smart Specialisation Creative Districts) Europako proiektuaren emaitzen konferentzia eta

Zientzia, Teknologia eta Berrikuntzarako Euskal Kontseiluaren akta

dibulgazioa; eta KSITek programa abian jartzea, Kultura eta Sormen Industriek trantsizio teknologikoa egin dezaten.

5. Jokin Bildarratz: Ikerketa zientifikoa eta unibertsitatekoa.

2020an Euskadin zientziaren arloan egindako lanarekin lotutako berrikuntzarik nabarmenenen berri eman du Hezkuntzako sailburuak.

Ikus daitekeenez, COVID-19ak zientzia-sistemaren eta unibertsitateen funtsezko misioetan (prestakuntza eta ikerketa zientifikoa, esaterako) eragindako inpaktu negatiboak ez dira esanguratsuak izan oraingoz. Hori lortu da Euskadiko eragile zientifiko guztien ahalegin, lan bikain eta koordinazioari esker.

Sailburuak, bere aurkezpenean, funtsezko 5 lan-arloak laburbildu ditu:

- Zientziaren 2020ko txostenaren emaitza nabarmenak: 6.657 argitalpen zientifiko; % 59, munduko lehen mailako aldizkarietan; 17 ERC proiektu abian (maximo historikoa), eta 20.250 ikertzaile, biztanleria aktiboaren ia % 2.
- Unibertsitatea+Enpresa Estrategiaren esparruan egindako ekintzak: EAEko Unibertsitate Sistemaren lehen lankidetzak-prestakuntza; 41 titulazio dual; 4.0 industriaren eta Kultura eta Sormen Industrien gaitasunen mapa;
- STEAM Euskadi Estrategiaren esparruan egindako ekintzak: STEAM sare programa pilotua, 70 agente inplikatu dituen; STEAM Euskadi sariak –133 proiektu aurkeztu dira–; eta kultura zientifikoari buruzko onlineko masterra abian jartzea.
- Ikerbasque Fundazioak egindako lanaren emaitzak: 284 pertsona; 14 ERC eta ERC Synergy bat; 1.000 ikertzaile kontratatu dira; 32 milioi euro erakarri dira 2020an, eta 200 milioi euro 2007tik; eta, halaber, 2 Nobel saridun erakarri dira Euskadira.
- IKUS eta LINKER estrategia espezializatueta egindako aurrerapenak: superkonputazioko eta adimen artifizialeko eta biologia estrukturaleko guneak hedatzea; eta mikroskopio kriogeniko batez hornitzea eta Ikerbasque eraikin bat ezartzea, superkonputazioko, teknologia kuantikoko eta material aurreratueta guneak hartzeko.

6.- Zientzia, Teknologia eta Berrikuntzako Plana Euskadi 2030.

Zientzia, Teknologia eta Berrikuntzako Euskadi 2030 Plan berria aurkeztu du Cristina Uriartek, Zientzia, Teknologia eta Berrikuntzarako komisionatuak. Plan hori egiteko, 200 zientzia-, teknologia- eta enpresa-erakundetako 300 pertsonak baino gehiagok parte hartu dute. Gaurko Kontseiluan emandako dokumentazioaren parte da aurkezpen hori. 2019ko abenduko aurreko Kontseiluan onetsitako oinarri estrategiko eta ekonomikoen arabera egin da plana.

Zientzia, Teknologia eta Berrikuntzarako Euskal Kontseiluaren akta

Zientzia, Teknologia eta Berrikuntzarako Euskal Kontseilu honetan aurkeztu eta gero, Gobernu Kontseiluari helaraziko zaio, onetsi dezan.

Jarraian, adierazi du Euskadik ikerketaren eta berrikuntzaren alde egiten duen apustu estrategikoa dela ZTBP 2030. Epe luzeko apustu bat da, zientzia, teknologia eta berrikuntza sustatzeko, horiek izango baitira Euskadi digital, berde eta inklusibo baterako trantsizioa bizkortuko duten palankak.

ZTBP 2030 planak trantsizio teknologiko-digital, energetiko-klamatiko eta sozial eta sanitario hirukoitz bati egin behar dio aurre, identifikatutako megajoera globalek Euskadin duten inpaktuaren ondorioz. Era berean, onartu egiten du koronabirusaren pandemiak eragindako krisi ekonomiko eta soziala. Euskadiko egoera ekonomikoaren diagnostikoari erreparatuz gero, 2020an, kalkuluen arabera, Barne Produktu Gordinaren (BPGd) % 9,5eko jaitsiera gertatu da, aurreko urteko % 2,2ko hazkundearen aldean. Bestalde, langabezia-tasa % 11,2koa izan da 2020ko azken hiruhilekoan, eta 2019ko azken hiruhilekoan, berriz, % 9,5ekoa izan zen.

EAEko testuinguru estrategikoari dagokionez, Zientzia, Teknologia eta Berrikuntzako Plana «Giza Garapen Jasangarria» herrialde-estrategia globalean sartzen da. Estrategia horren EAEko ikuspegia bi dimentsiotan islatzen da: «Hazkunde Jasangarria» eta «Giza Garapena»; eta Euskadi Basque Country 2030 Agendan txertatzen du. Era berean, ZTBP 2030 planaren politikak Euskadiko Ekonomia eta Enplegua Suspertzeko Berpiztu Programaren (2020-2024) denbora-esparruan daude bilduta. Programa horrek EAEko erakundeen artean partekatutako erantzun global bat eskaintzen du, pandemiak sortutako ekonomia- eta enplegu-krisia gainditzeko.

Europako testuinguru estrategikora etorruta, Planak erreferentzia ugari ditu: Horizon Europa Esparru Programa, hiru zutabetan oinarritua, ikerketa- eta berrikuntza-aukerak areagotu dituen eta diziplinartekotasuna eta eragile ugariaren arteko lankidetzak bultzatzen dituen; Europa Digital Programa, ekonomiaren, industriaren eta gizartearen eraldaketa digitala babesten duena, teknologia digitaletan funtsezko gaitasunak garatuz eta indartuz, hala nola errendimendu altuko informatika, zibersegurtasuna eta adimen artifiziala eta haren hedapena eta erabilera hobea; Europako Itun Berdea, jasangarritasuna Europar Batasuneko politika guztietan integratzea zaintzen duena, non funtsezko zeregina izango baitute ikerketak eta berrikuntzak, ituneko helburuak betetzea bizkortzeko; eta Next Generation EU Programa, zeinak, bere tresna nagusiaren bidez –MRR–, trantsizio ekologikoekin, digitalekin eta erresilientziarekin lotutako inbertsioak eta erreformak babestu eta Europako lehentasunekin lotzen baititu.

Komisionatuak nabarmendu du ZTBP Euskadi 2030 planaren xedea dela berrikuntzan aurreratuen dauden eta bizi-maila eta enpleguaren kalitate handia duten Europako eskualdeen artean kokatzea Euskadi. Bestalde, planak bere gain hartzen du, lehen aldiz, 5 erronka sozialetan (energia eta klima-aldaketa, osasuna, enplegua, eraldaketa digitala eta genero-berdintasuna) ekarpenak egiteko konpromisoa. Erronka horiek Nazio Batuen Garapen Jasangarriaren Helburuekin bat datoz eta aipatu diren eta gaur egungo munduan eta gizartearen

Zientzia, Teknologia eta Berrikuntzarako Euskal Kontseiluaren akta

eragiten ari diren 3 eraldaketa handiei (teknologiko-digitala, energetiko-klimatikoa eta soziala eta sanitarioa) estuki loturik daude.

Planak, Horizon Europa programarekin bat etorrita, hiru zutabe estrategiko ditu: Z1) Bikaintasun zientifikoa, bikaintasuneko ikerketa hobetzeko, eta hori oinarri izan dadin ezagutza, gaitasun, teknologia eta soluzio berriak sortzeko. Z2) Buruzagitza teknologiko industrial, I+G arloko inbertsioen eragin sozioekonomikoa eta teknologia- nahiz enpresa-emaitzak lortzeko eta nazioartean kokatzen laguntzeko. Z3) Berrikuntza irekia, berrikuntza bultzatzeko, bereziki ETEetan, bai eta berrikuntza publikoa eta nazioarteko beste ekosistema batzuekiko lankidetzaren ere. European ez bezala, gune nagusi bat definitu da: talentua. I+G+B arloko lehentasunekin bat datorren talentu zientifikoa, teknologikoa eta enpresa arlokoa prestatu, garatu, sustatu eta bereganatzeko balioko du, zutabeak hedatzea ahalbidetuko duena.

ZTBP 2030 planean, lau helburu operatibo daude zehaztuta: 1) EAEko ikerketa, garapen eta berrikuntzaren emaitzetarako orientazioa maximizatzea; 2) Enpresetan I+Gko eta berrikuntzako jarduerak sustatzea, batik bat enpresa txikietan eta ertainetan; 3) EAEko ikerketa, garapen eta berrikuntzaren nazioartekotzea indartzea; 4) Talentu zientifiko-teknologikoa sustatzea, batez ere emakumeen artean. Helburu bakoitza planean ezarritako lehentasunen arabera hautatutako adierazle gutxi batzuen bidez neurtzen da –8 neurtze-eremutan daude jasoak–, kontuan hartuta Regional Innovation Scoreboard (RIS) dokumentuko nazioarteko erreferentziako adierazle nagusiak. Adierazle bakoitzerako, egungo egoera hartzen da abiapuntutzat, eta hiru helmuga ezartzen dira, tarteko bi helmuga 2023an eta 2026an –horretarako, tarteko ebaluazioak egingo dira–, eta, azkenik, ZTBPre 2030erako helmuga. Era berean, adierazle horiek dira planaren aginte-koadroa, eta planaren ebaluazioa eta jarraipena egiteko aukera emango digute.

Aurreko Kontseiluan onetsitako oinarrien dokumentuan jasotzen zenez, espezializazio adimenduneko estrategia berria, RIS3 Euskadi 2030, megajoeren eragina duen bilakaera da, lehen aipatutako trantsizio hirukoitzaren bektorea barne hartzen duena, RIS3 sektore eta arlo guztietan eragiten duena eta enpresa-garapenerako aukera handiak dakartzana. Hori dela eta, hiru lehentasun estrategikoak birdefinitu dira: 1) Industria adimenduna; 2) Energia garbiagoak eta 3) Osasun pertsonalizatua, bai eta lau aukera-esparruak ere: 4) Elikadura osasungarria; 5) Ekoberrikuntza; 6) Hiri jasangarriak eta 7) Euskadi sortzailea.

ZTBP 2030 planak Zeharkako Trakzio Ekimenak kontzeptua sartzen du, eta ulertzen da ekimen horiek eremu estrategiko zehatzetan RIS3 arloen arteko lankidetzaren sustatuko duten tresnak direla. Enpresen, unibertsitateen, teknologia- eta ikerketa-zentroen eta administrazio publikoen artean estrategia komunak ezartzean eta/edo partekatzean oinarritutako ikuspegi bat da. Ikuspegi hori ezarritako eremuetan ongi definitutako helburuak dituzten trakzio-proiektuak identifikatzera bideratua dago, eta horiek ezartzeak EAEko gizarteak sumatuko dituen emaitza ukigarriak ekar ditzake. Euskadirentzat eraldatzeko potentziala duten lankidetzaren publiko-pribatuko proiektuak dira. Hasiera batean, hiru eremu zehatzetan definitu dira: zahartze osasuntsua; mugikortasun elektrikoa; eta ekonomia zirkularra.

Zientzia, Teknologia eta Berrikuntzarako Euskal Kontseiluaren akta

Halaber, oinarrizko teknologien mapa bat jaso da. Mapa hori, gero, aplikazio bertikal espezifikoei zehaztuko da pilotaje-taldeentzat.

ZTBP 2030 planak berak, halaber, ZTBP 2030 plana hedatzeko tresnak jasotzen ditu, hau da, policy mix-a. Tresna horiek sei kategoriatan egituratzen dira, eta haien onuradun nagusien artean daude Zientzia, Teknologia eta Berrikuntzaren Euskal Sareko enpresak eta eragileak. Tresnak askotarikoak izan daitezke, eta Eusko Jaurlaritzak eta foru-aldundiek sustatzen dituzte. Egungo tresnen zerrendaz gain, 2030era arteko bilakaera gidatuko duten etorkizunerako orientazio estrategikoak jasotzen dira.

Planaren gobernantzari dagokionez, ZTBP 2030 planaren helburua da eraikitako gobernantza-eredua finkatzea. Bileran egiaztatu denez, berritu eta indartu egin da Zientzia, Teknologia eta Berrikuntzarako Euskal Kontseilua. Kontseiluaren lidergoa, Sailarteko Batzordearen bidezko estrategiaren hedapen operatiboarekin batera, hirugarren maila batek indartzen du; hirugarren maila horrek erraztu egiten du Zientzia, Teknologia eta Berrikuntzarako Euskal Sistemako eragileen parte-hartzea eta ekarpena, zeharkako trakzio-ekimenetako lantaldeen eta pilotaje-talde bidez. Parte hartzen duten pilotaje-taldeetako ordezkariak eta helize hirukoitzeko beste eragile batzuek osatuko dituzte talde horiek.

Azkenik, Planeko helburuak betetzen direla bermatzeko eta definitutako RIS3 estrategiari erantzuteko, beharrezkotzat jotzen da Euskadik, oro har –funts publikoak eta inbertsio pribatuak barne–, erabakitasunez egitea I+G arloan inbertitzen jarraitzearen alde, ez galtzeko berrikuntzaren eta lehiakortasunaren Europako trena. Planean, bi helburu ezarri dira 2030erako: batetik, Europako batezbestekora iristea eta, are gehiago, hura gainditzea; bestetik, I+G arloko inbertsioen eraginkortasuna eta efizientzia handitzen jarraitzea, enpleguan eta enpresen lehiakortasunean duten eraginaren bidez emaitza praktikoa lortzeko. I+Gko inbertsioaren bilakaera zehazten duten parametro ekonomiko nagusien azken urteetako bilakaera eta ZTBP 2030 planean ezarritako helburuak kontuan hartuta, 2021-2030 agertokia definitu da, eta Eusko Jaurlaritzak konpromisoa hartu du ZTBP 2030 planaren indarraldian urteko % 6ko batez besteko igoera izateko. Hori dela eta, guztira, 18.600 milioi euro baino gehiagoko inbertsioak aurreikusi dira 2021etik 2030era bitartean.

7. Bileraren laburpena eta Erabakiak.

Lehendakaria bileraren nondik norakoak laburbiltzen hasi da:

ZTBP 2020 plana amaitu ondoren, esan dezakegu balantzea positiboa dela. Espezializazio adimenduneko RIS3 strategiaren hedapena osatu da; 2014. eta 2019. urteen artean 8.200 milioi eurotik gorako inbertsioak egin dira (% 90ekoa da aurreikuspenen betetze-maila). Inbertsio horiek emaitza zehatzak ekarri dituzte: hazi egin dira enpresa-produktu berriak, goi-teknologiako eta erdi-mailako teknologiako produktuen esportazioak, argitalpen zientifikoak (nazioartean gehien aipatu diren % 10en artean) eta I+Gren nazioarteko finantzaketa.

Pozik gaude emaitza horiek lortu ditugulako, baina azpimarratzen jarraitu behar dugu I+G arloan egiten ditugun inbertsioak hobetzeko premia –batez ere enpresek–, bai eta enpresa

Zientzia, Teknologia eta Berrikuntzarako Euskal Kontseiluaren akta

txiki eta ertainen artean berrikuntza sustatzeko premia ere. Era berean, gure erronka da ikertzaileen artean emakumeak egotea bultzatzea.

Balantze eta hausnarketa horretatik abiatuta, «Zientzia, Teknologia eta Berrikuntzarako 2030 Plana» aurkeztu dugu, hasi berri den hamarkadarako Euskadiren apustu estrategikoa irudikatzen duena. Erakunde publiko, enpresa, unibertsitate, ikerketa-zentro, teknologia-zentro eta eragile sozioekonomikoetatik datozen 200 erakundetako 300 pertsonak baino gehiagok egin dute lan plan horretan.

Planaren xedea hau da: berrikuntzaren alorrean Europako eskualderik aurreratuenen artean –bizi-maila altua eta enplegu-kalitate handia dutenak– kokatzea Euskadi, 2030erako. Plan hori Euskadi Basque Country 2030 Agendaren parte da. Agenda horrek biltzen ditu herrialdeak Nazio Batuen Garapen Jasangarriaren Helburuekiko duen konpromisoa eta «Giza Garapen Jasangarria» herrialde-estrategia. Eta nazioarteko eta tokiko erreferentzia ugarirekin bat dator: Horizon Europa Esparru Programa, Europa Digital Programa, Europako Itun Berdea, Next Generation EU programa eta Euskadiko Ekonomia eta Enplegua Suspertzeko Berpiztu Programa (2020-2024).

ZTBP 2030 planak zutabe estrategikotzat ezartzen ditu bikaintasun zientifikoa, buruzagitza teknologiko industrial eta berrikuntza irekia, eta, era berean, talentua jartzen du erdigunean. Horiek hedatzeko, lau helburu operatibo zehazten dira: 1) Emaizetarako orientazioa; 2) Berrikuntzaren garapena; 3) EAEko I+G+B nazioartekotzea eta 4) Talentu zientifiko-teknologikoa sustatzea, batez ere emakumeen artean. Helburu bakoitzak tarteko eta amaierako adierazle eta helmuga batzuk ditu, Plana denboran monitorizatzen eta ebaluatzen lagunduko dutenak.

Aurreko Kontseiluan onetsitako oinarrien dokumentuan jasotzen zenez, espezializazio adimenduneko estrategia berria, RIS3 Euskadi 2030, trantsizio hirukoitzaren –teknologiko-digitala, energetiko-ekologikoa eta soziala eta sanitarioa– sektorea barne hartzen duen bilakaera bat da, RIS3 sektore eta eremu guztietan eragiten duena eta enpresa-garapenerako aukera handiak ematen dituen. Hori dela eta, hiru lehentasun estrategikoak birdefinitu dira: 1) Industria adimenduna; 2) Energia garbiagoak eta 3) Osasun pertsonalizatua, bai eta lau aukera-esparruak ere: 4) Elikadura osasungarria; 5) Ekoberrikuntza; 6) Hiri jasangarriak eta 7) Euskadi sortzailea.

Zientzia, Teknologia eta Berrikuntzako Planak «RIS3 Euskadi» espezializazio adimendunaren estrategia garatu eta ardazten du, eta berrikuntza gisa «Zeharkako Trakzio Ekimenak» (zahartze osasuntsua, mugikortasun elektrikoa eta ekonomia zirkularra) garatzea ezartzen du, herrialdearentzat estrategikoak diren eremu zehatzetan lankidetza-lana sustatzeko. Horrez gain, ezarritako helburuak eta helmugak lortzeko funtsezkoak izango diren «oinarriko teknologien» mapa bat definitzen da.

Plan berriak 2030era arte aurreikusitako agertoki ekonomiko batzuk definitzen ditu, eta horien barruan sartzen da I+G+B babesteko aurrekontuak urtean % 6 handitzeko Eusko Jaurlaritzaren

Zientzia, Teknologia eta Berrikuntzarako Euskal Kontseiluaren akta

konpromisoa. Zientzia, teknologia eta berrikuntza bultzatzea da apustua, Euskadi digitalago, berdeago eta inklusiboago baterako trantsizioa bizkortzeko, XII. Legealdiko Gobernu Planean ezarritako helburuekin bat etorritz.

Kontseiluaren erabakiak aurkeztu aurretik, **lehendakariak** galdetu du ea bertaratutakoren batek plan berria baloratu nahi duen edo oharren bat adierazi nahi duen hari buruz. Innobasqueko presidente Manuel Salaverriak hartu du hitza, zoriontzeko eta ZTBP 2030 planaren balioa azpimarratzeko, enpresa-ehunari eta, batez ere, ETEei laguntzeko aukera bat baita. Orain, planaren hedapenean dago erronka.

Unai Rementeriak, Bizkaiko ahaldun nagusiak, hartu du hitza, eta eskatu du ZTBP Euskadi 2030 planean, berrikuntzen artean, sailarteko nahiz erakundearteko koordinazio handiagoa jasotzea.

Mintzaldi horiek entzun eta gero, **lehendakariak** Zientzia, Teknologia eta Berrikuntzarako Euskal Kontseiluari aurkeztu dio honako hau:

Erabakia: «Zientzia, Teknologia eta Berrikuntzako Plana 2030 Euskadi» planaren aldeko txostena egitea. Plan hori Gobernu Kontseiluari bidaliko zaio, onetsi eta, ondoren, Eusko Legebiltzarrera igor dezan.

Erabaki hori hartu dute Zientzia, Teknologia eta Berrikuntzarako Euskal Kontseiluko kideek.

Era berean, lehendakariak, bileraren laburpen gisa, honako ondorio hauek aurkeztu dizkio kontseiluari, kontuan har ditzan:

Lehena: ZTBP Euskadi 2020 planaren balantzea positiboki baloratzea. Plan horren ondorioz, 8.200 milioi eurotik gorako inbertsioa egin da I+G arloan, eta zenbait emaitza zehatz lortu dira zientziaren, teknologiaren eta enpresaren arloetan.

Bigarrena: Giza garapenerako eta hazkunde jasangarrirako estrategiaren esparruan, Euskadin hazkunde ekonomikoa erdiesteko eta kalitatezko enplegua sortzeko motor gisa zientziak, teknologiak eta berrikuntzak duten garrantzia berrestea.

Hirugarrena: Eusko Jaurlaritzak eta ZTBP Euskadi 2030 planean parte hartzen duten administrazioek Euskadiko ikerkuntzaren eta berrikuntzaren etorkizunarekin hartzen duten aurrekontu-konpromisoa nabarmentzea, bakoitzak bere gaitasunetik; izan ere, konpromiso horrek berekin dakar I+G+B babesteko aurrekontu-sailak handitzea.


Laugarrena: Enpresa, unibertsitate, ikerketa-zentro, teknologia-zentro, erakunde publiko eta gainerako erakunde guztiei eta, oro har, EAEko gizarteari egindako deiari eustea, ikerketaren eta berrikuntzaren aldeko apustu irmoa egiten jarrai dezaten eta ahaleginak areagotu ditzaten eta ZTBP 2030 planaren xedea gauzatzen lagun dezaten: «Euskadi berrikuntzan aurreratuen dauden eskualdeen artean kokatzea».

Zientzia, Teknologia eta Berrikuntzarako Euskal Kontseiluaren akta

8. Galde-eskeak.

Markel Olanok, Gipuzkoako ahaldun nagusiak, hartu du hitza, eta nabarmendu du ZTBP Euskadi 2030 plana bide-orri eredugarria dela administrazio eta erakunde guztientzat, eta eskatu du Plana beste administrazioetan aurkezteko.

Aztertzeko beste gairik ez dagoenez, bilera amaitu da.



Cristina Uriarte Toledo

ZIENTZIA, TEKNOLOGIA ETA BERRIKUNTZARAKO KOMISIONATUA